



Naziogintzarako ekinbidea behar

Gure ahalegin kolektiboa Euskal Herria nazio libre eta demokratiko moduan antolatzeko bidean jarri behar dugu euskaldunok. Eta oraindik orain ez gabiltza bide horretan.

Zer gara etxe barruan eta zer gara munduaren aurrean. Horra hor erantzun beharreko bi premisa. Elkarlotuak biak.

Gure izaera kolektiboa definitzerako orduan, euskara da euskaldunon nortasunaren muina, zalantzarik gabe. Nazio propioa antolatzeko gauza izango bagara, euskara da, beraz, gure naziotasunaren klabea. Hortik aurrera, bagara gauza mundu problematiko honetan ezinbesteko diren aldaketa sakonak burutzen gure ekarpen baikorra egiteko. Euskararen komunitatea gaur egun, lurralde desberdinetan sakabanatua, edota egitura politiko eta erakunde desberdin eta arrotzen mende aurkitu arren ere, gizarte eredu berriztagarriak bultzatu eta eraikitzeko gauza den komunitatea da. Ez dugulako monarkia anakronikoen edota erakunde zurrunduen hipotekarik gure baitan. Eta bereziki azken hamarkadetan munduan diren proposamen, pentsamolde eta ekinbiderik aurrerazaleenei bidea zabaldu diegulako gurean.

Bada garaia gure kabuz ekinbidea marrazteko. *Euskara da gure territorio libre bakarra*, esan zuen behin, kartzelan zeukatela, gutariko batek. Bada abiapuntu bat, nazio librea eraikitzeko ekinbidean. Askatasun apurra hobea da kartzela itxia baino, ados. Autonomia modu bat beti da

Euskara bada gure territorio librea, landu dezagun euskara Euskal Herriko lurralde guztietan

zerbait, erabateko itxikeria zentralizatuaren aldean, konforme. Alderdi politikoak beharrezkoak ditugu gure herrian berezko diren korrante ideologiko desberdin edota kontrajarriei moldea eta bidea eskaintzeko, bai. Baina horiekin guztiekin ere, ez dugu aurrerabide handirik lortuko Euskal Herria nazio librea egiteko bidean, ez badugu horretarako estrategia propioa definitzen eta horren inguruan ekinbide partekatua garatzen. Auzokoaren ortuan landatzen ditugun fruitu eta lorerik ederrenez ere ezingo gara sekula jabetu, besteen lurraldea edertzeko izango direlako beti, gure lurreko landare propioak ihartzen ikusten ditugun bitartean. Belarki inbaditzailea sartu ziguten aspaldi gure ortuetan, eta bertoko lorerik ederrenak baztertu eta



KARMELO LANDA
HISTORIALARIA

zaputzen ditu. Horixe bera ari zaigu gertatzen orain, hain zuzen ere.

Euskara bada gure territorio librea, landu dezagun euskara Euskal Herriko lurralde guztietan, baita diasporan ere. Eraiki dezagun nazio librea euskara ardatz hartuta. Erabakitasun osoz. Arrazoia Arnas Dezagun ekimenekoek euskara ume guztien ondasun bihurtzea eskatzen dutenean, eta haur euskal hiztunak ez sakabanatzeko eskatzen dutenean. Une honetan ezinbestekoa zaigu euskal hiztunen eta euskararen erabileraren guneen sendotzea eta trinkotzea. Une honetan Euskal Herriaren lurralde bereizi guztietan eta bakoitzean euskara hizkuntza ofiziala bihurtzea erreklamatu behar dugu indar osoz.

Zer garen etxe barruan eta munduaren aurrean, horra hasieran aipatu duguna. Une honetan Euskal Herriaren irudi oso lausotua eskaintzen ari gara mundura. Munduak ez daki zer garen, non gauden, zer egin nahi dugun eta nola. Agian badakite gure lurretan paisaia ederrak dauzkagula, museo ikusgarriak eta gastronomia bikaina eskaintzen ditugula, eta atzerritar turismo-zaleen definizioan, *les basques bondissants* izan gaitetzke. Kanpora bidaltzen dituzten presentazio-txartel guztietan, gure gobernariak ahaztu egiten dute munduari eskaintzeko daukagun ondasun preziatuena euskara bera dela. Gure herrietako paisaia goitik behera aldatu behar dugu, euskara izan dadin herri honen nortasun agiria. ●